

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p>IL0122</p>	<p>Datu pertsonalen aurka agertzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko eskari orokorra</p>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoan (LOPD) herritarrei aitortzen zaizkien eskubideak dira, euren datuei buruz egiten den erabilerak eurak kontrola dezaten.

Aurka agertzeko eskubideak datuen tratamendua gauzatzea saihesten du, edo horri uztera behartzen du, tratamendurako baimena beharrezkoa ez denean, legezko eta oinarritutako zergati bat dagoenean, hori justifikatzen duen egoera pertsonal zehatzari buruzkoa, Lege batek ez badu kontrakoa agintzen.

Zuzentzeko eskubideak, datu pertsonalak aldatzeko aukera ematen du, datu horiek zuzenak ez direnean edo osorik ez daudenean.

Baliogabetzeko eskubidearen bitartez, datu pertsonalak ezabatu egingo dira desegokiak edo gehiegizkoak direnean.

NORK ESKA DEZAKE?

Pertsona fisikoek edo horien lege ordezkariak.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E007 Eskabide orri orokorra](#)

Solicitud del derecho de oposición, rectificación o cancelación de datos personales. (Eskabide orri orokorra)

DNI, pasaporte o documento de identidad que los sustituya.

- **Aurka agertzeko eskubidea:** Eskatzaileak, aurka agertzeko eskubidea gauzatzeko duen helburua azaltzen (edo egiaztatzen) duen dokumentazioa, tratamendurako bere baimena beharrezkoa ez den fitxategietan agertzen denean, legezko eta oinarritutako zergati bat dagoenean, datuen tratamendu eza justifikatzen duen egoera pertsonal zehatzari buruzkoa, Lege batek ez badu kontrakoa agintzen.
- **Zuzentzeko eskubidea:** Eskaria justifikatzen duen dokumentazioa.
- **Baliogabetzeko eskubidea:** Eskaria justifikatzen duen dokumentazioa. Eskatutako baliogabetzea poliziaren fitxategiekin erlazionatuta badago:
 - Absoluzioa/lagespen askea edo behin behinekoa ematen duen ebazpen judizialaren lekukotza-kopia edo kopia konpultsatua, ebazpen horren irmotasuna baieztatuz.
 - Zigorra dagoenean, ebazpen judizialaren ziurtagiria, lekukotza-kopia edo kopia konpultsatua, ebazpen horren irmotasuna baieztatuz. Balizko horretan, zigor aurrekariet buruzko Zigortuen eta Auzi-iheslarien Erregistro Zentralaren Ziurtagiri eguneratua ere aurkeztu beharko da

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Telematikoki:

- [Udalaren web orrian](#)

Posta arrunta:

- Posta ziurtatua
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 10 egun

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [15/1999 Legea, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoa](#)
- [Izaera pertsonaleko datuak babesteko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen erregelamendua onartzen duen 1720/2007 Errege Dekretua](#)
- [2/2004 legea, otsailaren 25ekoa, Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.](#)
- [308/2005 dekretua, urriaren 18koa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena.](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa erregistratu.
2. Aurka agertze edo baliogabetze kasuetan, izaera pertsonaleko informazioa beste norbaiti laga bazaio, erakunde arduradunak lagapena jaso duen erakundeari jakinarazi beharko dio, hamar eguneko epean hark ere baliogabetu ditzan, epe berean.
3. Ebatzi eta jakinarazi.

NORK ONARTU BEHAR DU?

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Zerbitzu Orokorrak - Idazkaritza

OHARRAK

Fitxategiaren arduradunak beti erantzun beharko du, eskatzailearen datuak bere ardurapeko fitxategian badaude edo ez badaude, posta elektronikoz edo beste baliabide elektroniko baten bitartez, edo eskatzailearen aukeraketaren arabera egokitzen har daitekeen beste edozein baliabide erabiliz.

Aurka agertze edo baliogabetze eskubidea onartuz gero, datuak blokeatu egingo dira, eta Administrazio Publikoen, Epailen eta Epategien esku baino ez dira geratuko, tratamendutik sortutako erantzukizun posibleak landu ahal izateko, horien preskripzio epean (araz edo kontratu bitartez ezarritako epean kontserbatu beharko dira helburu horrekin).

Aurka agertzeari ezezkua ematen bazaio, horretarako arrazoia eman beharko da, eta eskatzaileari dagokion Datuen Babeserako Agentziaren tutoretza eskatzeko duen eskubidea jakinarazi.